

## Etxaburu'tar Jose Mari, "Kamiñazpi"

*Hondarribia*, 44. zk., 1991-09: 22-23.

Idazle bakoitza bere obran isladatzen da.\* Lanean ari den bitartean honetaz jabetzen ez bada ere, egindakoa argitaratzerakoan agertzen dira ongi eraikitako etxe batean honen oinarriak zutabeak eta gelen egitamuaren antzera. Osorik geratzen da agerian idatzi duenaren diseinu ezkutua, eta baita falta dena ere; askotan aukera honen zergatia bera ere bai. Idazten dena berez eta zio baten ondoren irteten baitira idazleak edo kazetariak presiopean daramatzen asmo nagusienak.

Aipamen honetan, "Kamiñazpi" k bere bizitzan zehar idatzi eta argitaratuak dituen<sup>1</sup> lanak liburu modura berrargitaratzean egin duen gai sailketa bera jarraituko dugu.

*Erljioa* du lehen gaia, 45 orrialdez luzatzen da, eta bere kezka nagusiak: gurasoaren ardura; Katolikotasun edo ortodoxia, Eliza eta politikaren Mundua; kristau ikasbidea ikastoletan; gaztedia; sasikonfesioa, "seigarrena dala-ta", elizgizonak eta euskara dira. Mende honen hasieran, 1913an, jaioa den Jose Marik gerraurre eta gerrako euskaldunaren gogoetak bizi ditu; bat bateko aldaketa handien eragina jasan duen gizona da; egokitu zaion familiak eta Euskal Herriak bizi izan dituen kanpoko eta barruko erbestaldiak bere-bereak ditu. Mundua irauli zaio zero eta guzti, eta ahaleginean euskaldun-fededunen modura eraman ahal izan du guztia, honetarako gauza izan da.

*Abertzaletasunak, euskarak eta euskal folklorea* dira bigarren maila nagusia osatzen duten gaiak, 146 orrialde hartzen dizkio. Bada abertzaletasunak ukitu gabe euskarak eta folkloreak bereziki hunkitzen duen euskaldunik; halere gai hauek erdaldunak ere senti ditzake hizkuntza eta folklorea zientzia alderditik begiratuta; baina Jose Mariren kasuan, Euskal Herriaganako maitasun berak besarkatzen ditu denak; hemen ez dago pitzadurarik.

*Gizarte auzia* hamalau orrialdetara mugatua geratzen bada ere, oso adierazgarriak dira defendatzen edo salatzen dituen arazoak: lehen, familia barruan, emakumearen duintasuna eta haurrak; Joxe Mari bera tarteko: hor ageri da, bere garaiko euskaldun asko bezala, hamabi urte zituenerako lanean, eta kostaldekoa denez gero, arrain lantegian sartu zuten zortzi zituenetik: "udabarriko illa bi inguruan erriko beste ume guztiak lez antxobeari burua kentze lan zikiña egin beharra izan neban" lanak markatutakoan; lehorrekoak morrontzara edo piontzara bidaltzen zituzten modura, eta honek markatzen du.

\* *Neure idazlan bilduma*, Itxaropena, Zarautz, 1991.

Lehen liburua bezala aipatua izan da, baina *Txolintxu*, *Ondarrabia-ko kondaira* eta *Lau urteko neure ibillerak* argitaratuak ditu.

<sup>1</sup> Idazlanak 1933tik hasi (lehen lan hau, "Guda bildurra", *Euzkadi* egunkarian Errepublikaren garaian argitaratu zen, egileak 20 urte zituela eta 1977 barne: *Agur*, *Anaitasuna*, *El Bidasoa*, *El Diario Vasco*, *Goiz-Argi*, *Karmel*, *Yakin* eta *Zeruko-Argian* argitaratuak izan dira.

Haurtzaroa Euskal Herrian gogorra izan zen gerraurreko sasoi hartan eta geroaldian ere ez biguna.

Hurren, "beharginen zartzaroz" arduratzen da; gaurko "kontsumo gizartea" aipatzen du, eta kexa da; ebaketa bat egin behar eta Gipuzkoako hospitaletan lekurik gabe txanda zai geratua da, eta kexa da berriz, ez delako miseria honetaz prentsan inor kexatzen. Eta berak 1986ko *Agur* aldizkarian egiten du salaketa.

Ez da Jose Mari isilik geratu.

Gero lehen mailako irakaskintza dohakoa den ala ez planteatzen du gordin asko, arrazoi handiz; ez baita hemen ere seme-alaben beharrekin zuzen jokutzen, eta justizia eskatzeko bere modua da hau.

*Arrantzea* da gero 33 orrialdetako gai nagusia. Joan denekoaren historia piska bat egiten du, eta "makallua" aitatzen du sasoi haietako garraztasunak adierazi eta gaurko arrantzaleak bizi du aldia apur bat goxatzeko. Halere bada gaur ere arazorik: merke saltzen da "antxobea", harrapatzen denean!, eta gutxitzen denean, berriz, prezioa ez dute neurritz igotzen. Gero, arrantzatik bizi den beharginaz eta arriskuaz arduratzen da, gaurko ezbeharretarako helikopteroaren beharra aipatzen du; baditu arraina saltzeaz asmoak, salneurri zuzena ipintzeaz ere bai. Min du bajurako itsasuntziak gutxitzen ari direlako; bere ustez arrantzuntzien jabegoa zabaldu egin behar da, eta eranskin gisa lehorreko lanak ugaltu.

Itsasoko lan eta neke guztietan kezkatzen da kazetaria.

Baditu beste sailtxo batean Apolo, Ovni eta abar gogoeta politikak, baina amaitzeko aipatzen dituen Ondarruko kontu eta bertsoak dira gomuta hunkigarriak: Txordo kalegarbitzalea, Gillermo pelotaria, orain 50 urte jokatu ziren Donostiako estropadak, haurra zeneko eskolako kontu bat lehenengo jaunartzearen gogoeta; geroagoko Berriatua herritxoari egin zitzaion "bidebakokeria" salatzen du; Ondarruko txorizaleak eta kukuak aipatzen ditu, pertsonalki Olea bere txoriekin.

Denak aipatzen ditu egiari begira, zuzenki beti.

Egileak bere liburua, kasu honetan bere mundu osoa, eskaintzen duen modua beti izaten da esanguratsua, eta Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi" k hala dio liburuaren hasieran, bertsolariak bezala, esandako guztia borobiltzeko pentsatua balego legez: "Oraintsu il jatan neure andra ononari, Juanita'ri eskeintzen dautsat liburu au".